

**ANOETAKO UDALEAN ETA UDALERRIAN EUSKARAREN  
ERABILERA SUSTATU ETA NORMALIZATZEKO ARAUAK  
EMATEN DITUEN UDAL-ORDENANTZA**

**INDARREAN 2003KO UZTAILAREN 12TIK**

**(2003KO APIRILAREN 4KO UDALBATZARREAN ONARTUA)**

**(G.A.O. 131 ZKIA-2003.07.11)**

# **ANOETAKO UDALEAN ETA UDALERRIAN EUSKARAREN ERABILERA SUSTATU ETA NORMALIZATZEKO ARAUAK EMATEN DITUEN UDAL-ORDENANTZA**

## **SARRERA**

Euskara Anoetako berezko hizkuntza izanik, Euskal Herriaren berezko hizkuntza eta nazio hizkuntza ere bada. Horrez gain, euskara ofiziala da Anoetan, indarrean dagoen legediaren arabera.

Alabaina, Euskara Euskal Herriaren identitatearen ezaugarri nagusienetakoa izanik, bigarren mailako hizkuntza da Euskal Herrian, hizkuntza gutxitua, bai gizarte erabilerari dagokionez zein herritarrek euskararekiko duten babes juridikoaren aldetik. Anoetako herritarrek gaztelania ezagutu eta bizitzaren alor guztietan erabiltzeko eskubidea bermaturik duten bitartean, muga nabarmenak aurkitzen dituzte euskara bizitzaren alor guztietan erabiltzeko, alegia euskaraz bizitzeko.

Egoera hau ez da sortu euskal herritarrek nahi izan dutelako, mendeetan zehar euskaldunen gaineko botere politikoa eragin duten estatuak euskararekiko ezarri izan duten bazterketa edo eraso politiken ondorioz baizik, euskara desagerraraztea helburu izan duten politikak hain zuzen ere. Anoetako herritarrek euskarari eutsi dioten arren, hizkuntza gordez, erabiliz eta garatuz, kalte nabarmena jasan dute norbanako gisa nahiz herri gisa, herritarren hizkuntz eskubideak urratuak izan direlarik. Norbanako gisa, euskara erabiltzeko oztopo nabarmenak aurkitzen dituztelako, euskara Anoetan ofiziala eta herritarren artean gehien erabiltzen den hizkuntza izan arren, eta, herri gisa, gure herriaren identitatearen ezaugarri nagusia desagertze egoeran jarri dutelako.

Hizkuntz eskubideen urraketa egoera honen aurrean, herri ekimen aipagarriak piztu eta garatu dira, Euskal Herriko gainontzeko herri eta lurraldeetan bezala, Anoetan ere, euskararen normalizazioa lortzeko azken hamarkadetan herritarren lana eta ahaleginak bideratu dituztenak.

Ez dugu ahaztu behar ere, 1999 urtean Anoetako udalerrria UEMAn sartu izana eta horrek ekarri zuena:

- UEMAren laguntzaz Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana diseinatzea.
- Anoetako Udalak 2001ean plana onartzea.
- Euskara Plana abian jarri eta bideratzeko baliabideak ipintzea.

Halere, herritarren eskubideak babesteko eta horien erabilera bermatzeko dagokien eginkizuna kontuan izanda, herri aginteek ardura berezia izan behar dute urratutako hizkuntz eskubideak berrezartzeko, babesteko eta bermatzeko behar diren arauak eta neurriak indarrean jartzeari begira. Izan ere, herritarren hizkuntz eskubideak babestea ez da eskubidedun herritarren soilik dagokion eginkizuna, herritar guztiei dagokiena baizik, bakoitzari bere neurrian.

Hori dela eta, Anoetako Udalak anoetarren eta Anoetara datozen herritarren euskararekiko hizkuntz eskubideak babestera eta eskubideon erabilera bermatzera zuzendutako xedapenak jasotzen dituen ordenantza onartzen du. Ordenantza honek Euskal Herrian eta Anoetan bertan euskararen normalizazioa erdiesteko orain arteko lan arautzailea jaso eta garatu nahi du eta udalerrri honetan neurri babesleak aplikatu.

Ordenantzan, lehenengo eta behin, udalari dagozkion betebeharrak xedatzen dira, izan ere, udalak lehenengoa izan behar du herritarren hizkuntz eskubideen bermatzerakoan eta euskararen erabileran eredu eta bultzagile. Ondoren, gure udalerrian herritarrek euren bizitzaren eremu guztietan euskara erabiltzeko duten eskubidea berma dadin udalerritari eta gainontzeko erakundeei begirako xedapenak jasotzen dira.

## **LEHEN ATALBURUA**

### **XEDAPEN OROKORRAK**

#### ***1. Artikulua. Xedea.***

Ordenantza honek anoetarren hizkuntz eskubideak babestu eta bermatzeko eta Anoetan euskararen erabilera orokortua erdiesteko xedapen egokiak jasotzea du xede.

#### ***2. Artikulua. Euskara eskubide bat.***

Euskara, Euskal Herriaren nazio hizkuntza eta Anoetako berezko hizkuntza izanik, hizkuntza ofiziala da Anoetako Udalerrian, lehentasunez.

Horrenbestez, euskara Anoetako Udalaren eta udalaren menpe dauden beste erakunde publiko guztien ohiko lan hizkuntza da eta herritarrek jardun publiko zein pribatutan bereizkeriarik gabe erabiltzeko eskubidea dute.

Euskara, hainbat eta hainbat urtetan jasan duen zokoratze-prozesuaren ondorioz, normalizaziotik urrun dagoenez, udalak euskararen gizarte erabilera publiko orokortua erdiesteko beharrezkoak diren neurri sustatzaile eta betearazleak sustatuko ditu.

#### ***3. Artikulua. Ofizialtasuna.***

Anoetan euskaraz idatzitako erabaki, jakinarazpen, xedapen, ziurtagiri eta gainerako agiri guztiek, publikoak zein pribatuak, balio ofizial osoa dute.

#### ***4. Artikulua. Izendegia eta toponimoak.***

Anoetako udalerriko kale, bide, auzo, auzune, mendi, ibai eta erreken izendegi ofiziala eta, oro har, toponimoak euskaraz finkatuko dira, jatorrizko izenek beste hizkuntza batekoak ez diren bitartean.

#### ***5. Artikulua. Herritarren hizkuntz eskubideak.***

Anoetako Udalak honako hizkuntz eskubideok aitortzen dizkie espresuki herritarrei:

a) Udalarekin eta bere menpeko organismo ororekin ahozko eta/edo idatzizko harremana euskaraz izateko eskubidea.

- b) Udalak antolatu, kudeatu edo lagundutako ikasketak oro euskaraz egiteko eskubidea.
- c) Udalaren argitalpenak eta udalak egunkari, aldizkari, irrati eta beste edozein komunikabidetan jakitera ematen dituen berri eta xedapenak oro euskaraz hartzeko eskubidea.
- d) Udaleko edozein bileratan euskaraz jarduteko eskubidea.
- e) Euskal Herriko edozein aginte publiko eta administrazioarekin ahoz nahiz idatzizko edozein harreman edota edozein jarduketa, administratibo, polizial edo judizial euskaraz izateko eskubidea.
- f) Udalerriko ikastetxeek euskararen transmisioa berma dezaten oinarritzko hezkuntzako zikloetan.
- g) Euskaraz ikasteko, ikasketa eta prestakuntza maila guztietan, inolako murrizketarik gabe.
- h) Merkatal zein kontsumitzaile iharduera oro euskaraz egin ahal izateko, balio juridiko osoarekin, euskararen erabilpenerako inolako murrizketarik gabe. Halaber, kontsumitzaile gisako informazio eta publizitate oro euskaraz jasotzeko, eta ez beste hizkuntzetan baino beranduago, baita udalerrian merkaturatzen diren informatikako softwareak eta erabilera ikus-entzunezkoa edo interaktiboa duten produktuak euskaraz merkaturatu daitezten, eta ez beste hizkuntzetan baino beranduago.
- i) Udalerrian hedatzen diren komunikabideek euskararen presentzia nahikoa berma dezaten.
- j) Euskarak toki nagusia har dezan udalerriko gizarte-kultura eta aisiarako gertakari eta zerbitzuetan.

**6. Artikulua.** *Hezkuntzak bermatu beharrekoak.*

Anoetako udalerriko ikastetxeak ikasleak derrigorrezko hezkuntza amaitzerakoan euskaldun oso eta garatuak izatea bermatuko du.

**7. Artikulua.** *Ikasketak euskaraz bermatu.*

Erakunde publikoek Anoetako herritarrek Euskal Herrian egiten dituzten ikasketa oro, unibertsitatea bukatzeraino, euskaraz egin ahal izatea bermatuko dute.

**8. Artikulua.** *Euskararen Gizarte Erakundeak.*

Euskara berreskuratu eta normalizatzeko urteetan zehar egin duten lan eskerga aitortzen die udalak Euskararen Gizarte Erakundeei eta, horrenbestez, gizarte onuraren sortzaile izaera onartzen diete aurretiaz.

Udalak gizarte onuraren sortzaile izaera duten Anoetako gizarte erakundeen zerrenda finkatuko du 3 hilabeteko epean.

**9. Artikulua.** *Udalerriaren garapena.*

Anoetako euskaldun kopuruak hizkuntz komunitatearen trinkotasuna mantentzea ahalbidetu duela ikusita eta trinkotasun hori mantentze bidean, udalerriaren garapena sustatuko da, irizpide nagusi bezala hizkuntzaren aldetiko jasangarritasuna kontuan hartuz.

## **BIGARREN ATALBURUA**

### **UDAL ADMINISTRAZIOAN EUSKARAREN ERABILERA BERMATZEKOA**

#### ***10. Artikulua. Lanpostuei hizkuntza eskakizunak definitzea.***

Aurreko ataletan jasotakoa betetzeko xedez, udal-langileak euskaldundu eta alfabetatzeko neurri egokiak hartuko ditu Anoetako Udalak, eta aipatu helburuak lortzeko jarduera-plangintzak egingo ditu. Era berean, etorkizunean kontratatzen dituen langileek beren jarduna euskaraz burutzeko gai izan beharko dute. Horretarako, azaroaren 25eko 250/1986 Dekretuaren, urriaren 17ko 224/1989 Dekretuaren, abuztuaren 3ko 238/1993 Dekretuaren eta apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuaren ildotik, udaleko eta udalaren menpeko erakundeetako lanpostu guztien hizkuntz eskakizunak definitu eta onartuko ditu, lanpostuetan jardun ahal izateko ezinbesteko baldintza gisa; lanpostuen zerrendetan jasoko dira hizkuntz eskakizun horiek.

Hizkuntz eskakizunak lanpostu bakoitzaren funtzio eta zereginen arabera definituko dira, hots, plaza bakoitzaren izaeran (udal barruko nahiz kanpoko harreman-sarean, menpeko pertsonalean, zerbitzuaren izaeran, lanpostuaren maila profesionalean, eginkizun zehatzetan) oinarrituz erabakiko dira lanpostuen ahozko nahiz idatzizko hizkuntz trebetasunak.

#### ***11. Artikulua. Laugarren helburu mailakatua.***

Azaroaren 25eko 250/1.986 Dekretuko 12. artikuluan xedaturiko bost helburu mailakatueteriko laugarrena hartzen du beretzat Anoetako Udalak. Beraz, gizarte-izaera eta izaera orokorra duten zerbitzu eta administrazio unitate guztiek euskaraz burutuko dute beren jarduna, baina, beti ere, herritarrak gaztelaniaz jasotzeko duen eskubidea bermatu behar du udalak. Gainerako zerbitzuetan, hau da, kale-garbitzaileen eta obretako lantaldearen zerbitzuan zirkuitu elebiduna bermatuko da.

#### ***12. Artikulua. Udalaren plangintza.***

Aipatu dekretuko laugarren helburua lor dadin plangintza egokia prestatu eta hezur mamituko du Anoetako Udalak; plangintza horretan zehaztuko dira langile guztiak eta bakoitza, dagokien hizkuntz eskakizunera egokitzeko prozesuan bete beharko diren epeak, udalak jarriko dituen bitartekoak, lehentasunak eta beste.

#### ***13. Artikulua. Euskara lan-hizkuntza izatea bermatzea.***

Anoetako Udalean eta bere eskumeneko erakundeetan lehendik kontratatuta lanean ari diren langileek (funtzionario nahiz kontratatuak, finkoak nahiz aldi baterakoak), beren eguneroko lana, nork bere mailan, euskaraz egiteko gai izan behar dute eta gai ez direnak gaitu egingo dira, horretarako beharrezko diren euskarazko prestakuntza-ikastaroak eginez.

Lortu beharreko euskararen hizkuntza-mailak eta berorietara heltzeko egin beharreko ikasketak erabakitzerakoan, ondorengo bi puntu hauek hartu behar dira kontuan:

**13.1.** Azaroaren 25eko 250/1986 Dekretuaren, urriaren 17ko 224/1989 Dekretuaren eta apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuaren ondorioz, Hizkuntz Politikarako Sailordetzak, Herri-Arduralaritzako Euskal Erakundearekin elkarlanean lanpostu bakoitzarentzat ezarritako hizkuntz eskakizunak.

**13.2.** Aurrekoari kalterik egin gabe, udalak, Euskara-batzordearen bidez egindako edo eginarazitako azterketen bidez beharrezkotzat jo ditzakeen mailak.

Hizkuntzaren ezagutza-maila horiek lortzeko, Euskara-batzordeak, HAEE eta HPSrekin batera egitasmo zehatzak proposatuko ditu eta udalak onartuko, urteroko aurrekontuetan horretarako behar diren dirukopuruak onetsiz.

Funtzionario eta langile guztiei emango zaie ordenantza honen berri, bai eta, era berean, lanpostuei dagozkien hizkuntz ezagutza eta erabilera-mailaren berri ere.

#### **14. Artikulua.** *Langileak kontratatzea.*

**14.1.** Anoetako Udalak, objetibotasun-irizpidez hautatuko ditu langileak, nola udalerako hala menpeko erakundeetarako, nola funtzionarioa hala kontratatua, nola finkoa hala aldi baterakoa, izangaien berdintasun-, merezimendu- eta gaitasun-printzipioen arabera eta beti ere deialdi publiko bidez, Euskal Funtzio Publikoaren Legearen eta udalak onetsitako oinarrien arabera.

**14.2.** Anoetako Udalak etorkizunean kontratatuko dituen langileek beren iharduera euskaraz burutzeko gai izan beharko dute. Anoetako Udaleko lanpostuez jabetu ahal izateko, funtzionario gisara nahiz lan-eraentzapean, nahitaezkoa izango da lanpostuari dagokion hizkuntz eskakizuna egiaztatzea, lanpostuak duen eskaera mailari egokitua; gutxienez ere 1986ko azaroaren 25eko 250/1986 Dekretuaren, urriaren 17ko 224/1989 Dekretuaren eta apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuaren ondoriozko hizkuntz eskakizunei eta udalak beharrezkotzat emandako mailei dagokiena.

**14.3.** Probak gainditzen dituztenen artean lanpostuaren hizkuntz eskakizuna ere betetzen duen lehen izangaia jabetuko da lanpostuaz. Hizkuntz eskakizuna betetzen duen izangairik ez balego, hutsik utziko da plaza, berriro deialdia egiteko.

**14.4.** Bestalde, udalak kontrata ditzakeen enpresetako langileak, udalarentzat lanean jardungo direnean, lanpostuaren arabera dagozkien hizkuntz eskakizunak betetzen dituztela frogatu behar dute udalaren aurrean.

#### **15. Artikulua.** *Administrazio-zerbitzu eta sail euskaldunak.*

**15.1.** Anoetako Udalaren eta bere eskumeneko erakundeen eraketa-helburua euskalduna izatearena da, hau da, langile, funtzionario nahiz kontratatu euskaldunez eratutako administrazio-zerbitzu eta sail euskaldunak izatea. 2. atalaren filosofiari jarraituz, euskara lehentasunez erabiliko da.

**15.2.** Bideak eta Bitartekoak. Aurreko helburua betetzeko, beharrezkoak diren bideak eta bitartekoak ipiniko ditu Anoetako Udalak:

**15.2.1.** Denbora oso edo partzialeko ikastaroak, ikasturte bat edo gehiagoko ikastaroak, hala nola ikastaro trinkoak, barnetegiak, lanorduetan edo lanorduz kanpo burutu beharrekoak, lan-giroko prestakuntza, eta abar, Euskara-zerbitzuak kontrolatu eta balioetsiko ditu ikastaroen emaitzak. Langile bakoitzarentzat egoki den bitartekoa langilearekin adostasunean aplikatu behar da.

**15.2.2.** Zerbitzu buruek eta Euskara-zerbitzuak, udalak onartutako Lege, Dekretu eta Ordenantzetan aginduak betez helburuak betetzen joatean, zerbitzu desberdinetan dauden beharrak aztertuko dituzte eta Euskara-zerbitzua behar horien jakinaren gainean jarririk, beronek idatziko ditu, Euskararen Normalizaziorako

Batzordearen eta HAEE nahiz HPSren oniritziekin, beharrezko diren euskalduntze-alfabetatze eta laneko euskararen egitasmoak eta, kasuan kasu, Udalbatza Osoak onartuko ditu.

**15.2.3.** Beren udal-jarduna euskaraz burutzeko gai diren eta hala burutzen duten langileen esku jarriko ditu udalak beharrezko diren lexiko-hiztegi, terminologi zerrenda, aldizkari eta liburu espezializatu eta gainerako dokumentu, inprimaki eta ereduak. Era berean, Euskara-zerbitzuaren aholkularitzaz ere baliatu ahal izango dira langileak.

**15.2.4.** Idazmakinak, ordenagailuak, berauen inprimagailu eta programak, eta Anoetako udaletxean erabiltzeko eskuratutako materialak euskaraz funtzionatzeko egokituta egon behar dute.

**15.3.** Anoetako Udalean, leku-aldaketaz, igoeraz, transferentziaz nahiz beste edozein bidez lanpostu berri batera heltzeko, ezinbesteko baldintza da lanpostuari dagokion hizkuntz eskakizuna betetzea. Horretarako, udaleko lanpostuen zerrendak berak jasoko ditu lanpostuei dagozkien hizkuntz eskakizunak; eta urteko aurrekontua lanpostu-zerrendarekin batera aurkeztuko da, Udalbatzak Osoko Bilkuran onar dezan urte horretan udalean egingo den lanpostu-eskaintza.

## **16. Artikulua.** *Udalaren organoak.*

Udaleko Alkatetzak, Alkateordetzak, Batzordeak, Idazkaritzak, Bulego Teknikoak eta beste Administrazio-Sail edo Zerbitzu desberdinek euskaraz idatziko dituzte txosten, akta, irizpen, gai-zerrenda, proposamen, txosten, mozio, aurrekontu, akordio eta gainerako jakinarazpen oro, Udalbatzaren batzarraldietarako nahiz ordenantza honen esparrupeko erakunde edo organo desberdinen ezaguerapean jartzeko, eta, era berean, bilkura horietatik kanporatzeko.

**16.1.** Udaleko informazio-organoen eta Udalbatzaren bilkuretako akten jatorrizko testuak euskaraz jaso behar dira, nahiz eta bertan izandako interbentzioei buruzko erreferentziak egin izan diren hizkuntzan jaso.

**16.2.** Udaleko organo guztiek –informatiboek nahiz exekutiboek– euskara erabiliko dute beren ohiko lan-hizkuntza bezala. Organoen bilerak sistematikoki euskaraz egingo dira, eta euskaraz ez dakiten partaideentzat, horrela eskatuz gero, itzulpen-zerbitzua emango da. Organo horien aktak, jakinarazpenak, gutunak eta agiriak oro euskaraz idatziko dira, beharrezko den kasuetan gaztelaniara itzultzeari kalterik egin gabe.

16.3. Kontuan izanik organo guztien helburua euskara lan-hizkuntza bihurtzea dela, bitarteko eta neurri mailakatuak hartuko ditu udalak xede hori bete dadin.

## **17. Artikulua.** *Bilkuretako deialdiak.*

Udaleko informazio-organoen eta exekutiboen bilkuretako deialdi guztiak euskaraz egingo dira, eta gaztelaniazko itzulpena, eskatzen duten partaideei soilik igorriko zaie.

## **18. Artikulua.** *Liburu eta agiri ofizialak.*

**18.1.** Udaleko Agirien Sarrera eta Irteerako Erregistro- Liburu, Urteko Aurrekontu-Liburu, Akta-Liburu eta gisako liburu ofizialak euskaraz behintzat eta lehentasunez izango dira.

**18.2.** Beste erakunde ofizial batzuk bidalitako inprimaki ofizialak ere (INEko Estatistikakoak, Erroldakoak, INEMeko enpleguak, eta abar) gutxienez ere osoro elebidunak izan behar dute eta euskarazko

bertsioa behintzat osorik bete behar da. Erakunde ofizial horiei guztiei, ordenantza honen berri emango zaie, hori betetzeko bitarteko guztiak jar ditzaten. Hala eta guztiz ere, euskal bertsiorik eskaintzen ez badute, edo informazioa ukatuko zaie eskaini bitartean edo datuak euskarazko bertsio prestatu batean bidaliko zaizkie.

**18.3.** Udaletxera sartzen diren nahiz udaletxetik ateratzen diren agiriak idatzita dauden hizkuntzan inskribatuko dira udal-erregistroan, azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legeak 7. artikuluan xedatutakoaren arabera. Euskaraz eta gaztelaniaz idatzita daudenak euskaraz inskribatuko dira. Inskribatzerakoan idatzitako guztia (data, ordua,) euskaraz egingo da.

#### **19. Artikulua.** *Menpeko zerbitzuen esleipenak edo kontratazioak.*

Herritarrek botere publikoen kontzesiopean edo beste edozein esleipen edo kontratazio bidez zerbitzuak eskaintzen dituzten enpresekiko harremana euskaraz burutu ahal izatea bermatuko da. Horretarako udalaren menpeko zerbitzuen esleipenak eskubide hori bermatzearen baldintzapean izango dira. Zerbitzuaren esleipena jasotzen duen enpresak, gutxienik, euskaraz eskainiko ditu, bederen, publikizitatea, errotulazioa, idatzizko dokumentazioa eta ahozko komunikazioa.

#### **20. Artikulua.** *Herritarrekiko harreman idatziak.*

**20.1.** Inprimakiak, gutunak, iragarkiak, idazkiak, jakinarazpenak, txostenak euskara hutsezkoak erabiliko dira, herriko edozein talde, erakunde, elkarte, hiritar, enpresa edo bestek harreman-hizkuntzatarako euskara hautatzen duenean, 1982.eko Euskararen Erabilpena Arauzkotzeko Legeak 8.2 artikuluan agintzen duenaren arabera. Kasu honetan beraz, inprimakiak, gutunak, iragarkiak, idazkiak, jakinarazpenak, txostenak eta beste euskara hutsean idatziko dira.

**20.2.** Euskaraz eta gaztelaniaz idatziko dira gainerako kasu guztietan, euskarari lehentasuna emanez, euskarazko hizkien neurria hiru puntu handiagoa izanik eta kokapenari eta abarrei dagokienean lehenik euskaraz irakurria izateko moduan jarrita (goian, lehendabiziko, ezkerrean, eta abar).

**20.3.** Anoeta udalerritik kanpokoei igortzerakoan euskara hutsezkoak edo euskara eta gaztelaniazkoak erabiliko dira, kasuan kasu. Euskaraz eta gaztelaniaz idatzitakoak erabiltzen badira 20.2. atalean xedatutakoaren arabera igorriko dira. Azken kasu horretan, euskara hutsean eskatuko balute hala igorriko litzaieke.

**20.4.** Anoetako Udalak herritarren hizkuntz aukera librea errespetatuz euskaraz nahiz gaztelaniaz zuzentzen zaizkion gutunak, idazkiak eta abar onartuko ditu, bai eta, hala dagokionean, berriemailearen lurraldeko beste hizkuntzaren batean eginikoak ere.

#### **21. Artikulua.** *Zigiluak eta estanpatzekoak.*

Udalaren eta bere menpeko erakundeen zigiluak, paperen idazpuruak, gomazko zigiluak, tinbre-zigiluak eta antzeko beste elementuak, bai barne-funtzionamendukoak bai proiektio publikoa duten agerietan estanpatzekoak euskaraz egongo dira.

#### **22. Artikulua.** *Kanpo-harremanak.*

**22.1.** Teknikariei (Arkitektu, Ingeniari, Aparejadore, eta abar) eskatutako proiektu teknikoak eta Abokatu, Aholkulari eta gisakoei eskatutako Txosten Juridikoak edo bestelakoak, euskaraz, edo publikoari agerian ipintzekoak direnean euskaraz eta gaztelaniaz, euskarari lehentasuna emanez idatzita egon behar dute. Planoak, kalkulu-orriak eta aurrekontuak, sistematikoki eta osoro euskaraz, edo publikoari agerian ipintzekoak



direnean euskaraz eta gaztelaniaz egon behar dute euskarari lehentasuna emanez. Memoria edo deskribapenak aparte idatzita egon daitezke euskaraz edo jendaurrean ipintzekoak direnean euskaraz eta gaztelaniaz, beti ere euskarari lehentasuna emanez.

Erakunde publiko nahiz pribatuei ordenantza honen berri emango zaie (zerbitzu tekniko eta juridikoei, elkargo profesionalei, azterlanen egileei, eta abar), euskarazko harremanak finkatzeko behar dituzten prestakuntzak egin ditzaten eskatuz.

**22.2.** Udalak kanpoko saltzaile eta hornitzaileekin mantendu behar dituen merkataritzako kanpo-harremanetan euskararen normalizaziorantz urratsak emateko, guztiei emango zaie ordenantza honen berri eta ondorengoak betetzea eskatuko:

—Agiri guztiak euskaraz aurkezteko: Aurrekontuak, fakturak, e.a.

—Gutunak, memoriak, kontratuak, produktu- eta ekipo-izenak, beren erabilerarako eskuliburuak, mantentze-lanetakoak eta abar euskaraz izateko.

### **23. Artikulua.** *Kanporako idatzizko dokumentazioa.*

Udalaren idatzizko azalpenak, bandoak, mezuak, abisuak, araudiak, ordenantzak, xedapenak eta ebazpenak oro euskaraz behintzat argitaratuko dira.

**23.1.** Euskara hutsean argitaratuko dira ekintza-motak, bere ingurugiroak edo jasotzailearen berezitasunak eskatzen duenean edo/eta zor zaionean.

**23.2.** Gainerako kasuetan, euskara eta gaztelania erabiliko dira, euskarazko testuari lehentasuna emanez, gaztelaniazko testuaren gainean edo ezkerretara, euskarazko testuaren hizkien neurria hiru puntu handiagoa izanik lehentasunezko irakurgarritasuna ziurtatzeko.

### **24. Artikulua.** *Kanporako ahozko iharduera.*

Udalaren eta bere eskumeneko erakundeen azalpen ofizialetan, propagandan, informazioan, bandoetan, abisuetan, mezuetan eta jakinarazpenetan erabili behar den ahozko hizkera, era honetan izan behar da:

**24.1.** Euskara hutsa, ekintza-motak, bere ingurugiroak edo jasotzailearen berezitasunak eskatzen duenean edo/eta zor zaionean.

**24.2.** Kasu berezietan, Gizarte-zerbitzuetatik eskatzen bada, euskara eta gaztelania erabiliko dira, lehenik beti euskara erabiliz eta mezua errepikatu behar denetan kopuru aldetik ere gaztelania halako hiru erabiliz.

**24.3.** Arlo honetan gerta litezkeen ezustekoei aurre egiteko, azalpen, mezu, abisu, horiek eman behar dituztenak, elebidunak izan beharko dute beti, euskarazko hizkuntz gaitasun egokia dutenak, eta beren eginkizuna nola bete behar duten alde zuzenetik garbi adierazi behar zaie.

**24.4.** Udal-instalazioetan erabiltzen diren bozgorailu bidezko irratietako programak ere euskarazkoak izan behar dute.

**25. Artikulua.** *Kanpo-komunikazioa.*

Komunikabideen bidez kanporatutako berriei dagokienean, ondorengo jarraitu behar da:

**25.1.** Euskara hutsez izango dira, ekintza-motak, bere ingurugiroak edo hiritar, erakunde, elkarte edo talde euskaldunei zuzendutako berri eta iragarkiak nahiz euskarazko komunikabideetara bidalitako iragarki eta publizitatea.

**25.2.** Kasu berezietan, Gizarte-zerbitzuetatik eskatzen bada, euskaraz eta gaztelaniaz kanporatuko dira, baina lehentasuna euskarak izanez, bai denbora, tamaina, kopuru edo lekuari dagokionean. Errepikatzeak direnean, euskaraz, gaztelaniaz halako hiru aldiz adieraziko dira ahoz, eta 3 puntu gehiagoz idatziz.

**26. Artikulua.** *Argitalpenak.*

Aldizkariak, txartelak eta, oro har, udalaren argitalpenak euskaraz behintzat argitaratu behar dira; beste hizkuntzarik erabili behar izanez gero euskarari lehentasuna emanez erabiliko da, ordenantza honetan xedatutakoaren arabera.

**27. Artikulua.** *Erakunde ofizialekiko harremanak.*

**27.1.** Euskal Herriko Autonomia Erkidegoko Erakunde Ofizial Autonomiko, Foral eta Udaldar guztiei (Udal, Foru Aldundi, Jaurlaritzak eta beren ordezkariak guztiei) bidali behar zaizkien edonolako idazkiak, euskaraz bidali behar dira.

**27.2.** Nafarroa Garaiko Erakunde Autonomikoetara ere (Udal, Diputazio, Gobernu) idazki guztiak 27.1 puntuan adierazitakoaren arabera bidali behar dira.

**27.3.** Estatuak lehen aipaturiko Autonomia Erkidegotan dituen ordezkarietara bidali beharrekoetan ere, aurreko bi kasuetako hizkuntz politika berberari jarraitu behar zaio.

**27.4.** Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoko erakunderen batera idazkirik bidali behar baldin bada, euskaraz bederen bidaliko da.

**27.5.** Euskara hizkuntza ofiziala duten Organismoei bidaltzen zaizkien idazkietan euskara bakarrik erabiliko da.

**27.6.** Euskal Herriz kanpo, edozein Estatutako Erakunde Ofizial zuzendutako idazkirik bidaltzean, euskara eta ahal denean herrialde horri dagokion erdaraz erabiliko dira.

**28. Artikulua.** *Erakunde ofizialetatik jasotako idazkiak.*

Erakunde Ofizialek igortzen dituzten era guztietako idazkiei dagokienez, Euskararen Erabilpena Arauzkotzeko Legeko 8.2 artikulua ematen dituen eskubideaz baliatuko da Anoetako Udala, berak hartu behar dituen agiriak euskaraz eskatzeko, baina horretarako, betiere, berak 27. atalean xedatua zorrozki bete behar du.

**28.1.** Bai Euskal Herriko Autonomia Erkidegoko eta baita Nafarroako Foru Erkidegoko erakunde publikoetatik (Udal, Foru Aldundi, Eusko Jaurlaritza eta Nafarroako Gobernua), euskaraz ez datozen idazki, agiri eta gainerako oro, itzuli egingo zaizkie eta euskarazko bertsioak eskatuko zaizkie gutun baten bidez.

**28.2.** Era berean jokatuko da Euskarak Ofizialtasuna duen Autonomia Erkidegoetan kokatutako Estatuko Ordezkaritza Ofizialetatik datozen gutun, idazki eta agiriekin ere, hauek ere, Euskararen Legeak indarrean dauden lurraldeetan egoteagatik, obligazioa dute eta euskara erabiltzeko. Ondorioz, euskaraz ez datozen idazki-mota guztiak itzuli egingo zaizkie eta euskarazko bertsioak eskatuko zaizkie.

**28.3.** Euskal Herriko lurralde esparrutik kanpoko Administrazioek nahiz erakunde ofizialek Anoetako Udalari zuzendutako gutun, idazki, dokumentu eta abar, lurraldean lurraldeko hizkuntzan idatzirik ere onartuko dira.

#### **29. Artikulua. Ekintza publikoak.**

Anoetako Udaleko kargu politikoek euskaraz hitz egingo dute udalaren ekintza publikoetan, beren kargua dela eta parte hartzen dutenean. Euskaraz eta gaztelaniaz hitz egiten badute, euskarari lehentasuna eman beharko diote, ordenantza honetan xedatutakoaren arabera.

#### **30. Artikulua. Kontratuak.**

Anoetako Udalak sinatzen dituen kontratuak euskaraz idatziak izango dira, kontratuan esku hartzen duen beste alderdiak hala eskatuko balu berriz, euskaraz eta gaztelaniaz idatziak izango lirakeelarik, euskarari lehentasuna emanez.

## **HIRUGARREN ATALBURUA**

### **EUSKARAREN ERABILERA ANOETAREN GIZARTE-BIZITZAN BULTZATU ETA NORMALIZATZEKOA**

#### **31. Artikulua. Udalerrian euskararen erabilera normalizatu.**

Hiru dira euskararen erabilera Anoetako udalerrian normalizatzeari dagokionez udalak beregain hartzen dituen helburu nagusiak:

**31.1.** Zabalpen funtzionala: Euskara gizarte-sektore guztietara zabal dadin planak bideratzea erabilera-esparruak handitu eta zabalduz. Ondoko funtzioak ziurtatuko dira:

**31.1.1.** Euskara administrazio eta zerbitzu publikoen hizkuntza izatearena.

**31.1.2.** Hezkuntza bidez euskararen transmisioa ziurtatzearena.

**31.1.3.** Sektorre pribatuak herritarrekiko duen harremanetan euskararen erabilera ziurtatzearena, gutxienez berdintasun irizpidearekin.

**31.2.** Zabalpen demografikoa: Euskaldunen optimizazioa eta erdaldunen positibizazioa, honela, euskaraz dakiten herritarren kopurua pixkana-pixkana gehituz, era berean gaurko euskararen erabilera ziurtatu eta areagotzeko, hala euskaraz dakitenek nola ikasten ari direnek erabil dezaten bultzada iraunkorra emanez.

Hori horrela delarik, euskaraz dakitenen hizkuntz ohiturak aldatzearen aldeko saioak burutuko ditu udalak, modu iraunkorrean, nola bere ekimenez, hala bere gainetik dauden Erakundeen eta herritarren arteko bitartekotza eginez.

**31.3.** Zabalpen geografikoa: Euskararen erabilera Anoetako kale, auzo eta auzune guztietara zabaltzea.

Beraz, euskararen erabilera ziurtatu eta bultzatu eta gizartearen erabilera-esparru guztietan orokortzeko xedez, ahalegin berezia egingo du Anoetako Udalak bereziki euskaraz hitz egiten dakitenak alfabetatzen.

### **32. Artikulua. Zerbitzuetako errotulazioa.**

**32.1.** Zerbitzuetako errotulazioa, iragarkiak eta seinaleak euskaraz bakarrik idatziko dira, euskaraz eta Gaztelaniaz antzeko moduz idazten diren hitzak eta esaldiak (Merkatua, (Auto)busa, Aparkalekua, Farmazia, eta abar) edo erabilera zabala dutenak (Udala, Isilik, Ez erre, Irteera, Txakurrik ez, eta abar) direnean eta mezua piktogramaz baliatuz adieraz daitekeenean.

**32.2.** Gainontzeko testuak, euskaraz eta gaztelaniaz agertuko dira, baina betiere euskarazko testuari lehentasuna emanez, gaztelaniazko testuaren gainean edo ikusgarriago jarritz eta euskarazko hizkien neurria handiagoa izanik lehentasunezko irakurgarritasuna ziurtatzeko.

### **33. Artikulua. Udalerriko errotulazioa.**

**33.1.** Anoeta udalerriko kale, bide, auzo, auzune, mendi, ibai eta erreken izendegi ofiziala eta, oro har, toponimoak, Anoetako Udalak finkatuko ditu bere eskumen-esparruan; hori bai, betiere, euskal, erromantze edo gaztelani jatorria errespetatuz eta hizkuntza bakoitzaren grafia akademiko propioa erabiliz. Hori horrela delarik, Anoeta udalerriko toponimoen bilketa eta jadanik bildutakoen berrikuspena egingo du udalak, eginkizun horren ardura dagokion Erakundearen zuzendaritzapean eta Euskaltzaindiaren irizpideen arabera.

**33.2.** Kale-, bide-, auzo-, auzune-, mendi-, ibai- eta erreka-izen guztiak euskara hutsez jarriko dira eta ofizialki ere hala idatziko dira udalean bertan, ondorio guztietarako.

**33.3.** Herriko kale eta auzoetako idazkunak ere, printzipioz euskaraz idatziko dira:

—Euskaraz eta gaztelaniaz antzeko idazkera dutenak: Taxiak, Parrokia.

—Toponimikoak, herri- eta auzo-izenak, baserrienak, landenak, mendienak.

—Erabilera zabal eta orokorra duten euskal hitz eta esaldiak: Udala, Udaletxea, Udaltzaingoa, Ertzantza.

—Beren esanahi osoa piktogramaz adierazita gelditzen zaienak: Eman bidea, Hirigunea.

**33.4.** Gainerako testuak euskaraz eta gaztelaniaz idatziko dira, baina betiere, euskarazkoari lehentasuna emanez, gainean edo lehenik irakurtzeko moduan jarritz eta hizkiak handiago direla ipiniz, lehentasunezko irakurgarritasuna ziurtatzeko.

**33.5.** Herri-bideetako trafiko-seinale eta iragarpenak oro euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz idatziko dira. Euskaraz idatziko dira: Euskaraz eta gaztelaniaz antzeko idazkera dutenean, erabilera zabal eta orokorra duen euskal hitz eta esaldiak badira edo beren esanahi osoa piktogramez adierazita geratzen bada. Gainerako kasuetan euskaraz eta gaztelaniaz idatziko dira. Nolanahi ere, euskarazko testua lehenetsiko da bai hizki-neurriari bai kokapenari dagokionez, 33.4 puntuan xedatutakoaren arabera.

#### **34. Artikulua.** *Garraio publikoetako idazkiak.*

Anoetako garraio publikoetako inprimaki, abisu, ohar eta adierazpenak oro euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz egin daitezten neurri eraginkorrek hartuko ditu udalak. Euskara hutsean egingo dira ondoko kasuetan: Euskaraz eta gaztelaniaz antzeko idazkera dutenean, erabilera zabal eta orokorra duen euskal hitz eta esaldiak badira edo beren esanahi osoa piktogramez adierazita geratzen bada. Euskaraz eta gaztelaniaz egiten den kasuetan nolanahi ere, euskarazko testua lehenetsiko da bai hizki-neurriari bai kokapenari dagokionean, hain zuzen ere, euskarazko testua goialdean edo ezkerrean eta hizkiak gaztelaniazkoak baino handiagoak izango direlarik.

Era berean, abiapuntua Anoetan ez eduki arren udalerrri honetan geralekua duten garraio publikoetako arduradunei ere gauza bera egin dezaten eskatuko zaie.

#### **35. Artikulua.** *Dirulaguntza jasotzen duten taldeen publizitatea.*

Azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearen 26. eta 27. artikuluetan xedatuaren arabera, euskara gizarte-esparru guztietan eta publizitatean erabil dadin eta, oro har, gizarte-bizitzan euskararen presentzia gehi dadin neurri egokiak hartzea dagokie botere publikoei.

Hortaz, Anoetako Udalak, aipatu xedearen harian eta bere jarduketaren eremuan, ondoren adierazten diren neurriok hartu eta betearaziko ditu.

**35.1.** Kultur, kirol- eta aisi-elkarte, erakunde, klub, entitate eta gainerako pertsona edo talde zerbitzu prestatzaileei dirulaguntzak ematerakoan hizkuntzaren irizpidea ere kontuan hartuko da. Udalak idazki bidez adieraziko dizkie interesatuei, dirulaguntzak ematerakoan.

**35.1.1.** Anoetako Udalarengandik dirulaguntzaren bat jasotzen duten elkarte eta erakundeek, pertsona fisikoek nahiz erakunde juridikoek, beren jardun subentzionatuetan argitaratzen dituzten idazki, iragarki, txartel, kartel, ohar eta gainerakoak euskaraz behintzat edo euskarari lehentasuna emanez idatzi eta ezagutzera eman behar dituzte. Propaganda ere, bai ahozkoa bai idatzizkoa, euskaraz behintzat edo euskarari lehentasuna emanez egin behar dute. Era berean, ospakizun jakinetan bozgorailu bidez ematen dituzten mezuak ere euskaraz behintzat edo euskarari lehentasuna emanez eman behar dituzte.

**35.1.2.** Euskaraz eta gaztelaniaz egiten diren adierazpenetan, eta batez ere ahozkoetan, euskarazkoari eman behar zaio lehentasuna, euskarazko adierazpenez jabe litezkeenak elebidunak baitira. Euskaraz eta gaztelaniaz egiten diren kasuetan ondoko arauok bete behar dituzte:

a) Hizkuntza idatziaren aldetik:

—Ezagunak edo nahiko erabiliak diren euskal hitz edo esaldiak euskaraz bakarrik idatzi.

—Euskaraz eta gaztelaniaz antzera idazten diren hitz eta esaldiak, euskaraz bakarrik idatzi.

—Bestelako testuak bi hizkuntzetan badoaz, euskarak lehentasuna izan behar du gainean edo lehentasunez irakurtzeko moduan idatziz eta hizkiak gaztelaniazkoak baino hiru puntu gehiagoko tamaina izanez.

Era berean, Euskara-zerbitzuak ikuskatuko ditu, idazkun eta gisako idazki finkoak.

b)Hizkuntza mintzatuaren aldetik:

—Bozgorailu, irrati, eta gisakoetatik egiten den propaganda, oharrak, publizitatea, eta abar, euskara hutsez egiten ez den kasuetan, euskaraz gaztelaniaz halako hiru egin behar da eta euskarari lehentasuna emanez egin ere.

—Erabiltzen diren musika, kantu eta abarrei dagokienean euskarazkoa ipiniko da.

Dirulaguntzak eskuratzeko baldintzetariko bat izango da hori guztia, eta dirulaguntzaren hartzaileek, dirulaguntza jasoko badute, nahitaez bete behar dute.

Baldintza hauek betetzen ez badira, dirulaguntza ematea dagokion batzordeak eta Udalbatzak, laguntza hori ukatu egin beharko du.

**35.1.3.** Hori guztia kontuan izanik ere, udalak ahalegin berezia egingo du arestian aipatutakoa euskaraz soilik egin dadin.

**35.2.** Udal-instalazioak, aretoak, lurrak, plazak eta materialak erabili behar dituzten erakunde eta enpresa guztiek, ondorengo hizkuntz arauak bete behar dituzte eta udalak, idazki bidez adieraziko dizkie baimena ematerakoan.

**35.2.1.** Hizkuntza idatziaren presentziari dagokionez, iragarkiak, oharrak, kartelak, txartelak, publizitatea, eta abar, euskaraz behintzat idatzi behar dira.

**35.2.1.1.** Euskaraz eta gaztelaniaz direnean, baldintza hauek bete behar dituzte:

—Ezagunak edo nahiko erabiliak diren euskal hitz edo esaldiak, euskara hutsez idatzi behar dira.

—Euskaraz eta gaztelaniaz antzera idazten diren hitz edo esaldiak, euskara hutsez idatzi behar dira.

—Euskaraz idatzitako hizkien neurria, gutxienez ere gaztelaniazkoena baino handiagoa izango da lehentasunezko irakurgarritasuna ziurtatzeko, eta kokapenari dagokionez euskarazko testua goiko aldean edo ezker aldean ipini behar da.

**35.2.2.** Hizkuntza mintzatuaren erabilerari dagokionez:

—Bozgorailu, irrati, eta gisakoetan egiten diren propaganda, oharrak, publizitatea, eta abar, euskara hutsez edo euskaraz eta gaztelaniaz egingo dira. Euskara hutsean egingo dira ekintza-motak bere ingurugiroak edo entzuleek eskatzen duenean edo/eta zor zaionean. Euskara hutsean egiten ez diren kasuetan, euskaraz gaztelaniaz halako hiru behintzat egin beharko dira eta euskarari lehentasuna emanez egin ere.

—Erabiltzen diren musika, kantu eta abarrei dagokienean euskarazkoa ipiniko da.

**35.2.3.** Hori guztia nahitaez bete behar da, eta, horretarako, aldez aurretik Sail bakoitzari eta Zerbitzuburu nahiz batzorde bakoitzari, horren guztiaren berri idatzia eman behar zaie bete dezaten (zirko, barraka, musika-jaialdi, antzerki, eta gainerako ikuskizun-mota guztiak barne). Baldintza Ekonomiko-Administraziokoan Orririk prestatzen denean, argi eta garbi adieraziko dira bertan hizkuntz arau hauek guztiak.

**35.2.4.** Hala eta guztiz ere, baldintzak betetzen ez badira, udalak honela jokatu du:

—Fidantzarik balego, ez itzuliz.

—Fidantzarik ez balego, fitxa bat bete eta hurrengoan baimena ukatuz.

**35.2.5.** Hori guztia kontuan izanik ere, udalak ahalegin berezia egingo du arestian aipatutakoa euskaraz soilik egin dadin.

**35.3.** Atal honetako aurreko puntuetan (hots, 35.1, 35.2) xedatutakoa betetzeko, doan eskainiko ditu udalak bere Euskara-zerbitzuaren itzulpen eta aholkularitza ageriko testuak badira, eta horrela jakinaraziko zaie interesatuei.

### **36. Artikulua.** *Euskara-zerbitzua.*

**36.1.** Udalerriko biztanle, merkatari, dendari, enpresa, elkarte eta erakundeei, itzulpen- eta zuzenketa-zerbitzu publikoa doan emango zaie. Horretarako, udalak, behar adinako Euskara-zerbitzua izango du eta zerbitzu honek ikuskatuko ditu argitaratu behar diren idazki, idazkun eta gainerakoak.

**36.2.** Euskara-zerbitzu honek, idazketa-, itzulpen- eta erredakzio-informazioa emango ditu, sarritan argitaratuta ikusten diren akatsak egin ez daitezen eta egindakoak zuzen daitezen.

### **37. Artikulua.** *Irakaskuntza ez unibertsitarioa.*

Irakaskuntza ez unibertsitarioari dagokionean euskarazko irakaskuntza orokor dadin eta euskararen ikasketa behar bezala berma dadin saio berezia egingo du udalak, etorkizunean haur, gazte eta etorkin horiek euskaldun osatuak izan daitezen, matrikulazio-epeak irekitzerakoan, euskarazko eredu eta adarren premia eta beharrezana azpimarratuz eta beroriek aukeratu dituzten haur eta gazteak, antolamendu arazoak direla medio, eredu eta adar horietan eskolatu gabe gera ez daitezen. Era berean, eskola-mundua eta eskolaume, ikasle eta etorkinen arteko giroa euskalduntzeko iharduera osagarriak ere bultzatuko ditu udalak. Hori guztia, gurasoen, haur nahiz gazteen eta etorkinen aukera erabat errespetatuz eta ikastetxeekin elkarlanean burutuko da.

### **38. Artikulua.** *Irakaskuntza unibertsitarioa.*

Irakaskuntza unibertsitarioari dagokionez, euskarazko adarrak bultzatzeko, eta bereziki Anoetako ikasleak unibertsitatean euskarazko ildoetan matrikula daitezen ahalegin berezia egingo du udalak, zabalpen funtzionalari begira garrantzi handia baitu horrek, izan ere, horretarako pertsona trebatuak behar dira, zabalpen funtzionala honen baitan bakarrik ez dagoen arren eta hori baino gehiago eskatzen badu ere.

### **39. Artikulua.** *Euskalduntzea, alfabetatzea eta UEU.*

**39.1.** Hizkuntz normalizazioaren esparruan udal honen xede nagusienetarikoa Anoetan euskaraz hitz egiten dakitenean kopurua gehitzea eta hitz egiteko gai direnak alfabetatzea denez, eta kontuan hartuz batetik, Anoetako biztanleriaren ehuneko batek oraindik ez dakiela euskaraz eta, bestetik, eskoletatik ere ez direla

denak euskara behar bezala menderaturik irteten, eta, halaber, kontuan hartuz erantzukizun publikoa dela euskalduntzearena, helduen euskalduntze eta alfabetatzerako saio berezia egingo du udalak.

**39.2.** Saio horien artean Euskara-ikasleentzat eta euskarazko ikastaro berezietarako dirulaguntzak emango ditu, ondoren adierazten den gisan:

**39.2.1.** Euskara-ikasketak egiten dituztenei. Hizkuntz ikasketak Irakaskuntza erregelatutik at egiten dituzten guztiei, ondorengo dirulaguntzak emango zaizkie:

—Euskalduntze, alfabetatze, EGA, sakontze-ikastaro eta gisako ikasketak egiten dituztenei matrikularen %75 emango zaie, baldin eta eskola orduen %90era joaten badira eta lanean ari badira.

—Euskalduntze, alfabetatze, EGA, sakontze-ikastaro eta gisako ikasketak egiten dituztenei matrikularen %100 emango zaie, baldin eta eskola orduen %90era joaten badira eta langabetu, ikasle edo etxeko lanetan ari direnak badira.

—Barnetegietara doazen kasuan, matrikularen %50 emango zaie lanean ari direnei eta %75 langabetu, ikasle eta etxeko lanetan ari direnei.

—Langabetuei langabetu-txartela eskatuko zaie eta, bestelakoetan, Euskara-batzordeak aztertuko du kasu bakoitza.

**39.2.2.** Udako Euskal Unibertsitateko (UEUko) ikastaroetara doazen herritarrak diruz lagunduko ditu udalak. Matrikularen, eta ez egonaldiaren, kostuaren %50 ordainduko zaie ikasle nahiz langabetuei, eta %25 lanean ari direnei.

#### **40. Artikulua.** *Euskarazko iharduerak.*

Euskaraz dakitenak euskaraz bizi ahal daitezen, gizarte-bizitza euskalduntzeko saio bereziak egingo ditu udalak, bai sektore ezberdinak euskalduntzeko prozesuak bultzatuz, bai haur, gazte eta helduentzako euskarazko kultur eta aisi-ospakizunak antolatuz.

Era berean, euskarazko sorkuntza indartu eta euskaraz idatzi eta irakurtzeko zaletasuna bultzatzeko xedez, bidezko irizten dituen ekintzak burutuko ditu udalak: Anoetarrek euskaraz idatzitako lanak argitaratzeko laguntzak direla, literatur lehiaketak direla.

#### **41. Artikulua.** *Euskara-batzordea osatzea.*

Anoetako Udalak, instituzioek egin behar duten euskara normalizatzeko lana ezinbestekotzat jotzen du, eta, era berean, nahitaezkoztat jotzen du udalerrian eta Euskal Herri osoan euskararen normalizazioan zeresanik duten pertsona eta erakundeekin harremanetan lan egitea, euskara Anoetako Udalean eta udalerrian normalizatzen bada, denon elkarlanaren fruitu besterik ezin baitaiteke izan. Horrexegatik, Anoetako Udalak bere lana eta pertsona nahiz erakunde horiena koordinatu asmoz, Euskara-batzorde Informatibo zabal bat antolatuko du.

#### **42. Artikulua.** *Kexuak bideratzea.*

Udalbarri barruan, edozein Zerbitzu Publikotan ere, zerbitzua euskaraz prestatzen ez den kasuetan kexua bideratu ahal izango da udaleko Euskara-zerbitzuaren bidez eta udaleko Euskara-batzordea, nahiz Udalbatza bera arduratuko da prestakuntza horren zuzenketaz.



## LAUGARREN ATALBURUA

### HERRITARREK ADMINISTRAZIOEKIKO ETA ZERBITZU PUBLIKOEKIKO HARREMANAK EUSKARAZ IZATEKO ESKUBIDEARI BURUZKOA

#### *43. Artikulua. Erregistroak.*

Anoetako herritarrek Euskal Herriko erregistroetan egiten dituzten idazpentzeak edo fede publiko-emaileen aurrean emandako agiriak euskaraz egin ahal ditzaten beharrezko neurriak hartuko dira. Idazpentze edo agiri hauen testimonio kopia eta matrize oro itzultzea fede-emaileen edota erregistratzaileen ardura izango da.

#### *44. Artikulua. Legeak eta arauak.*

Udalerrian eta udalerriko herritarrengan eragina duten lege eta bestelako arauak euskaraz ere argitaratu beharko dira, eta ez beste hizkuntzetan baino beranduago. Udalak betebeharraren jakinaren gainean jarriko ditu horren ardura duten administrazio guztiak.

#### *45. Artikulua. Osasun zerbitzuak.*

Osasun zerbitzu publikoek Anoetako herritarrek jasotzen duten zerbitzu oro euskaraz eman dakien beharrezko diren neurriak hartuko dituzte.

#### *46. Artikulua. Jarduketa judizial edo polizialak.*

Administrazio publikoek Anoetako herritarrek jarduketa judizial edota polizial oro euskaraz egin ahal izan dezaten beharrezko neurriak hartuko dituzte.

#### *47. Artikulua. Administrazio publikoa.*

Euskal Herrian edozein egoitza duten administrazio publikoek Anoetako herritarrek eurekin idatzizko zein ahozko harreman oro euskaraz egin ahal izateko beharrezko neurriak hartuko dituzte.

## **BOSGARREN ATALBURUA**

### **GIZARTE, EKONOMIA, KULTURA ETA AISIA ARLOKO HIZKUNTZ ESKUBIDEEI BURUZKOA**

#### ***48. Artikulua. Ageriko elementuak udalerrian.***

Udalerriko komertzio, enpresa edo zerbitzu profesionaletako errotulazioa, publizitatea eta idatzizko dokumentazioa, gutxienez, euskaraz egon beharko da.

#### ***49. Artikulua. Merkatuko produktuak.***

Udalerrian merkaturatzen diren produktuetako kontsumitzaile eta erabiltzaileentzako informazioa gutxienez euskaraz egon beharko da.

Halaber, udalerrian merkaturatzen diren softwareak eta erabilera ikus-entzunezkoa edo interaktiboa duten produktuak gutxienez, euskaraz ere egongo beharko dira.

#### ***50. Artikulua. Oinarrizko zerbitzuak (ura, gasa, argia, telefonoa, e.a.).***

Herritarrentzako oinarrizko zerbitzuak eskaintzen dituzten enpresek erabiltzaileek eurekin harrera, argibideak eta zerbitzuak jasotzeko beharrezko kontratuak eta gainontzeko dokumentazioa euskaraz jaso ahal izateko beharrezko neurriak hartuko dituzte. Oinarrizko zerbitzutzat hartzen dira ura, gasa eta agi indarraren horniketeta, telefono zerbitzuak, aseguruak eta antzerakoak.

#### ***51. Artikulua. Entitate pribatuen ageriko elementuak.***

Herrialdeko edota Euskal Herri osoko hedadura duten entitate pribatuek, euren publizitatea, errotulazioa eta idatzizko dokumentazioa eta herritarrekiko harremanak euskaraz izateko neurri egokiak hartu beharko dituzte.

#### ***52. Artikulua. Hedabideen iharduera.***

Udalerriri mailako hedadura duten hedabideen iharduera, gutxienez, euskaldun portzentaiaren adinekoa izango da euskaraz.

#### ***53. Artikulua. Enpresek euskara planak bideratzea.***

Anoetako udalerrian kokatuta dauden eta urtean, bataz beste, sei enplegatu edo gehiago dituzten enpresek, langileak euskaraz lan egiteko duten eskubidea bermatzeko, Anoetako udalerriko lantokietan euskara lan eta harreman hizkuntza gisa erabiltzeko planak ezarriko dituzte.

## SEIGARREN ATALBURUA

### HIZKUNTZ NORMALIZAZIORAKO AZPIEGITURARI BURUZKOA

#### *54. Artikulua. Azpiegitura.*

Ordenantza honen aplikazio eta garapenerako etorkizunean har daitezkeen neurri teknikoen zuzendaritzaz eta jarraipenaz, udaleko Euskara-zerbitzua arduratuko da, udaleko Euskara-batzorde Informatiboak nahiz Udabatzak esandakoa kontuan hartu ondoren, jasotako irizpideen arabera, markatutako ildotik bete daitezten.

Udaleko Euskararen batzorde Informatzaileari dagokio beraz, udalaren hizkuntz normalizaziorako proposamenak egitea eta Udabatzari, erabakiak hartuz, udalaren hizkuntz politika definitzea.

Euskara-zerbitzuaren zeregina da, aldiz, onartutako erabaki eta programa horiek hezurmamitu eta berorien zuzendaritzaz eta jarraipenaz arduratzea.

Era berean, Anoetako udalerrian euskararen normalizazio- lanetan diharduten pertsona, elkarte, erakunde eta gizarte-esparru ezberdinen koordinaziorako organo bat eratuko da. Organo hori, sektore ezberdinetan euskararen normalizazio-lanetan dihardutenen eztabaidarako elkargune izango dena, udalaren hizkuntz normalizaziorako jardunaren ardatzak finkatu eta berrikusteko irizpideak emateaz arduratuko da. Bestalde, Euskara-zerbitzua saiatu egingo da, era berean, Euskara-batzorde Informatiboko partaideei behar duten laguntza teknikoa eta azpiegitura ematen.

Anoetako Euskara-batzordeak proposatu eta Udabatzak markatutako ildotik, Euskara-zerbitzua izango da euskaraz egindako lanaren prestaketaz, idazkeraz eta gainbegiraketaz arduratuko dena, hala nola, lankideei jatorrizko agiriak euskaraz idazten lagunduko dietenak.

Ordenantza honen aplikazio eta garapenean eta hizkuntz normalizaziorako jardun orokorrean hizkuntz politikaren eskumena duten erakundeekin elkarlanean arituko da udala.

## XEDAPEN GEHIGARRIAK

**Lehena.** Anoetako Udalak Ordenantza honetan jasotako xedapenak betetzeko udalaren gainontzeko ordenantza, administrazio-xedapenen araubidea eta plangintzetan egin beharreko aldaketak eta, hala behar izanez gero, administrazio-xedapenen araubide edota plangintza berriak onartuko ditu, Ordenantza behin betiko onartzen denetik sei hilabeteko epean.

**Bigarrena.** Anoetako Udalak sortu edo eta bultzatzen dituen programa guztietan, hizkuntz normalizaziozko ikuspegia kontuan hartu beharko da eta udaleko Euskara-zerbitzua izango da, betiere ordenantza honen eta indarrean dagoen araudi juridikoaren ildotik, hizkuntz normalizaziozko ikuspegiaren presentzia berma dadin informatuko duena; udal-zerbitzu eta -departamendu guztiek eskaera egin beharko diote aipatu zerbitzuari

txostena eman dezan. Hori guztia, erabakia hartzea dagokion udal-organoak hartzen dituen erabakiei kalterik egin gabe.

**Hirugarrena.** Udal ordenantzetan azaltzen diren xedapenen betetze maila egiaztatzeko urtero txosten bat idatziko du Euskara-batzordeak ekainaren 30erako. Honetarako, udaleko Euskara-zerbitzuak jarraipenaren sistematizazioa proposatuko du, hau da, zein adierazle, noiz eta nola ebaluatzen dituen adieraziko duen sistema.

**Laugarrena.** Udalak onartutako gainontzeko ordenantza eta xedapenek ere, ordenantza honetan jasotako xedapenak bereganatu egin behar dituzte.

**Bosgarrena.** Udal-ordenantza honetan nahiz 10/1982 Euskararen Erabilpena Arauzkotzeko Legean, 250/1986 Dekretuan, 224/1989 Dekretuan, 238/1993 Dekretuan eta 86/1997 Dekretuan agindutakoa betetzeko eta betearazteko ardura, udaleko aginte-organo guztiek dute eta bereziki Udalbatza Osoaren Bilkurak, Gobernu-batzordeak, Alkatetzak, Alkateordetzek eta batzorde Informatzaile guztiek. Organo horiek, Euskara-batzordearen eta Euskara-zerbitzuaren bidez kontrolatuko dute ordenantza honetako puntu guztien betekizuna eta gertatzen diren arau-hausteak salatu eta bete daitezen eskatuko dute.

**Seigarrena.** Era berean, ordenantza honetan araututakoak burutu ahal izateko ezinbestekoa den Euskara-zerbitzua garatuko dute, behar dituen giza eta material-bitartekoz hornituta.

**Zazpigarrena.** Ordenantza honen aplikazio eta garapenerako beharrezkoak diren xedapen eta programa berezi gehatuak erabaki eta bultzatuko dituzte udaleko Organo Exekutibo edo Egikaritzailuek.

**Zortzigarrena.** Udalak, Euskararen Erabilera Normalizatzeko Ordenantza honen emaitzen azterketa eta ordenantzaren beraren berrikuspen orokorra egingo du indarrean sartu eta bost urtetara euskararen normalizazioari buruzko legeria edo araudi orokorraren nahiz egoera soziolinguistikoaren aldaketaren ondorioz, edota bestelako edozein arrazoiengatik lehenago berrikustea egoki ez baderitzo.

## **XEDAPEN INDARGABETZAILEA**

Ordenantza honen maila berekoak edo txikiagoak izanik, eta ordenantza honetan xedatuarekin bat ez datozen edo kontrajarrita dauden erabaki guztiak baliorik gabe gelditu dira.

## **AMAIERAKO XEDAPENA**

Ordenantza hau indarririk gabe gelditzeko, udala nahiz udalerria normaltasunez euskaraz funtzionatzera iritsi behar dute, edo berau arlo bereko beste ordenantza batek ordezkatu behar du.

Anoeta, 2006ko abenduaren 31a.

O.E Alkatea,-

Idazkari-Kontuhartzailea,-